

**GARRAIO  
ETA HERRILAN SAILA**

ERABAKIA, 1995eko abenduaren 1ekoa, Garraio Azpiegitura zuzendariarena, «Lutxanako tailerretan automatikoki kargatzen den hondarretarako silo bat» hornitu eta instalatzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

15128

**Beste Iragarpen Ofizial Batzuk****BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, «Erandio Goikoa-La Cadena Saihesbidea eraikitze Proiektua» lanaren egiterapenak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurreratu eta jabegokentze espedientea hastea ebazten duen Herrilan Sailaren azaroaren 15eko 5231/1995 Foru Aginduarena.

15130

**Xedapen Orokorrak****OSASUN SAILA****5260**

AGINDUA, 1995eko azaroaren 21ekoa, Osasun sailburuarena, Euskadiko Trasplanteen Batzorde Aholkue-mailea sortzen duena.

Organoen eta ehunen erauzketak eta trasplanteak berebiziko garrantzia dute, batetik teknika maila gorena eskatzen dutelako eta, beste aldetik, koordinazioa ere bikaina izan behar dutelako. Gainera, Medikuntzako alor asko hartzen dituzte beren baitan eta osasun zentroen arteko elkarlana, EAEn nahiz EAETik kanpo, ezinbestekoa dute.

Ildo horri jarraituz arautu ziren organoen eta ehunen erauzketak eta trasplanteak egiteko osasun zentroek bete beharreko oinarriko baldintzak eta horien kreditazioa (Osasun eta Kontsumo sailburuaren 1990eko urriaren 16ko Agindua); handik bi urtetara Euskal Autonomi Elkarteko trasplanteetarako Koordinazio-Ekipoa antolatu zen (Osasun sailburuaren 1992ko martxoaren 10eko Agindua).

Orduz gero alor honetan egindako lana eta izandako esperientzia aintzat hartuz, egoki ikusten da organoen eta ehunen trasplanteetan parte hartzen duten erakunde aholkuemaileak -zeinetan osasun arloko goi mailako

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES  
Y OBRAS PÚBLICAS**

RESOLUCIÓN de 1 de diciembre de 1995, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se acuerda convocar concurso para el «Suministro e instalación de silo de arena de carga automática para los talleres de Lutxana».

15128

**Otros Anuncios Oficiales****DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

ANUNCIO de la Orden Foral n.º 5231/1995 de 15 de noviembre, del Departamento de Obras Públicas, por la que se resuelve iniciar el expediente expropiatorio y someter a información pública la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución del «Proyecto de construcción de la Variante Erandio Goikoa-La Cadena».

15130

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE SANIDAD****5260**

ORDEN de 21 de noviembre de 1995, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Comité Asesor de Trasplantes de Euskadi.

La extracción y trasplante de órganos y tejidos son actividades de trascendencia sanitaria, con gran complejidad técnica y de coordinación, al implicar a múltiples especialidades médicas y a diferentes centros sanitarios, tanto dentro como fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En este sentido, se dicta la Orden de 16 de octubre de 1990, del Consejero de Sanidad y Consumo, que establece las condiciones y requisitos básicos sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos, y la Orden de 10 de marzo de 1992, del Consejero de Sanidad, que organiza el Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tras la experiencia acumulada y la práctica realizada en este campo procede regularizar los órganos consultivos en los que participan profesionales sanitarios de reconocida competencia en el campo del trasplante de

profesionalek parte hartzen baitute -taxuz arautzea, horrela, Osakidetzari eman diezaioketen laguntza operatiboa eta aholkularitza hobea izan dadin.

Uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuak Osasun Sailaren eta Osakidetzaren administrazio erakunde autonomoaren egitura organikoa eta funtzionala arautu zituen. Dekretu horren 12. atalean jasotzen denez, Osakidetzari aholku emateko erakundeak, bertan parte har dezaketenak eratu ahal dira, beti ere Osasun sailburuak emandako agindu baten bidez.

Hori dela eta, hauxe

#### XEDATU DUT:

1. atala.- Euskadiko Trasplanteen Batzorde Aholkuemailea sortzea; Osakidetzako Osasun Laguntzarako Zuzendaritzari atxikiko zaio eta bere helburua hau da: organoen eta ehunen erauzketetan eta trasplanteetan aholkularitza ematea.

2. atala.- Honako hauek dira Euskadiko Trasplanteen Batzorde Aholkuemailearen egitekoak:

a).- Parte hartzen duten unitateen beharrianak aztertzea.

b).- Burututako osasun zerbitzuak ebaluatzea (kalitatea eta eraginkortasuna).

c).- Baliabideak hobeto erabiltzeko unitateen arteko antolamenduari eta prozedurari buruzko jarduerak proposatzea.

d).- Organo-ehunen erauzketak eta trasplanteak egiteko azterpide koordinatuak proposatzea.

e).- Erakundeen arteko hitzarmenak, jarduerak eta agiriak sustatzea, ahalik eta etekin onena lortzeko.

f).- Jarduera operatiboak, ikerketa klinikoa eta profesionalen etengabeko prestakuntza bultzatzeko lehen-tasunak eta plangintzak aztertzea.

g).- Organo-ehunen erauzketak eta trasplanteak egiteko osasun zentroek bete beharreko oinarritzko baldintzak eta horien kreditazioa arautzen dituen Osasun eta Kontsumo sailburuaren 1990eko urriaren 16ko Aginduan jasotako edozein jarduera dela-eta, kreditazio horren inguruko gorabeheren berri ematea Osasun Sailari.

h).- Organoak beste autonomi, eskualde edo nazio mailako elkarrekin, edo nazioartekoekin elkarlartatzeko zereginetan aholkularitza lana ematea, eta kanpoko antzeko batzorde edo erakundeekin harremanak estutzea.

i).- Itzarote-zerrendak ikuskatzea eta horiei buruzko txosten teknikoak egitea.

j).- Organo-emaileen kopurua handitzeko bultzada daitezkeen ekimenetan aholku ematea.

k).- Euskal Autonomi Elkartearen esparruan organoak emateaz, erauzteaz eta trasplanteaz egiten diren jardueri buruz eta horiek ebaluatzei buruz txostenak idaztea.

l).- Trasplante mota bakoitza aztertzekeo berariazko azpibatzerdeak sortzea.

m).- Oro har, osasun mailako agintaritzak organoak

órganos y tejidos, con el fin de informar y asesorar a Osakidetzaren Servicio Vasco de Salud en temas organizativos y operativos de esta materia.

El artículo 12 in fine del Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetzaren Servicio Vasco de Salud, establece que por Orden del Consejero de Sanidad se podrán constituir órganos consultivos y de participación en dicho organismo.

Por lo expuesto,

#### DISPONGO:

*Artículo 1.-* Se crea el Comité Asesor de Trasplantes de Euskadi, como órgano consultivo adscrito a la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetzaren Servicio Vasco de Salud, para el asesoramiento en el desarrollo de las actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos.

*Artículo 2.-* Son funciones del Comité Asesor de Trasplantes de Euskadi las siguientes:

a).- Analizar las necesidades de las Unidades implicadas.

b).- Evaluar la calidad y eficacia de los servicios sanitarios realizados.

c).- Proponer actuaciones respecto a procedimientos y organización de unidades para un mejor uso de recursos.

d).- Proponer directrices de actuación coordinadas respecto a la actividad de extracción y trasplante de órganos y tejidos.

e).- Fomentar la creación de protocolos comunes, instrumentos y acciones coordinadas que ayuden a conseguir los mejores resultados posibles.

f).- Realizar análisis para el establecimiento de prioridades y planes para incentivar las actuaciones operativas, la investigación clínica y la formación continuada de los profesionales implicados.

g).- Informar al Departamento de Sanidad respecto a la acreditación de centros sanitarios para cualquiera de las actividades presentes en la Orden 16 de octubre de 1990, del Consejero de Sanidad y Consumo, sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos.

h).- Asesorar en los temas de cooperación e intercambio de órganos con otras comunidades autonómicas, regionales, nacionales o internacionales y en desarrollo de relaciones con organizaciones semejantes de los mismos.

i).- Supervisar las listas de espera y elaborar informes técnicos en relación a las mismas.

j).- Asesorar en relación con medidas tendentes a obtener un incremento de donantes potenciales.

k).- Elaborar informes de actividades y evaluación sobre donaciones, extracciones y trasplantes en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

l).- La creación de subcomisiones dirigidas a un tipo específico de trasplantes.

m).- Cuantas funciones consultivas y de asesora-

emateaz, erauzteaz, garraiatzeaz eta trasplantzeaz eska diezaiokeen aholkularitza lana ematea.

3. *atala*.– Batzorde Aholkuemaileak berezko arautegia izango du; arautegiak jasotzen ez duenetan, Herri-Administrazioen Lege-Jaurpideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

4. *atala*.– Batzorde Aholkuemaileak honako kideak, Osakidetzako zuzendari nagusiak izendatuta, izango ditu: lehendakari bat, idazkari bat eta, gutxienez, bederatzi kide.

Izendapena Osasun sailburuak egingo du, Osakidetzako zuzendari nagusiaren proposamenez. Beti ere banaketa hau hartuko da kontuan:

– Lehendakaria, Osakidetzako Osasun Laguntzarako zuzendaria edo hau eskuordetzen duena.

– Idazkaria, Euskal Autonomi Elkarteko trasplanteetarako koordinatzaile nagusia.

– Kideak, gutxienez bederatzi, trasplanteekin zerikusia duten espezialitateetako profesionalak.

5. *atala*.– Batzordekideak lau urtetarako izendatuko dira; bi urtez behin kideen erdiak berritu behar dira, lehendakaria salbu; pertsona bera hautatu daiteke karguak berritzen direnean.

Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da.

6. *atala*.– Batzorde Aholkuemaileak proposatuta eta egokia ikusten denean, bileretan azertu beharreko gaietan adituak diren profesionalak gonbidatuko dira parte hartzera, bai bileretan, bai Batzordearen jardueretan ere.

7. *atala*.– 1.– Lehendakariak, Batzordearen ordezkotza egiteaz gainera, honako funtzioak izango ditu:

a) bilkurak deitzea eta bertako gai-zerrenda taxutzeta.

b) bilkuretako burua izatea eta eztabaidak bideratzea.

c) bozketetan berdinketa gertatzen denean, erabakia hartzea bere botoaren bitartez.

d) bere karguari dagozkion gainerako zereginak.

2.– Idazkariak, berez dagozkion funtzioak betetzeaz gainera, honako zereginak izango ditu:

a) Batzorde Aholkuemailearen helburuak lortzeko jarduerak bultzatzea.

b) Batzorde Aholkuemaileak hartutako erabakiak burutzea.

8. *atala*.– Giltzurrun Transplanteen Azpibatzerdea sortzen da; Euskadiko Transplanteen Batzorde Aholkuemailearen funtzio berberak izango ditu, baina bereziki bere esparruko jardueretara mugatuak.

Batzordeko kideak Osasun sailburuak izendatuko ditu Osakidetzako zuzendari nagusiak proposatuta, eta honakoak izango dira: lehendakari, Osakidetzako Osasun Laguntzarako zuzendaria edo hau eskuordetzen duena; idazkari, Euskal Autonomi Elkarteko trasplan-

miento para las que se le requiera por parte de las autoridades sanitarias en relación con la donación, extracción, transporte y trasplante de órganos y tejidos.

*Artículo 3.*– El Comité Asesor se regirá por su propio reglamento y subsidiariamente por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.*– El Comité Asesor estará compuesto por un Presidente, un Secretario, y un mínimo de nueve vocales, y serán designados por el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

Dicha designación se realizará por el Consejero de Sanidad, a propuesta del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, teniendo en cuenta la siguiente distribución:

– Presidente, el Director de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, o persona en quien delegue.

– Secretario, el Coordinador General de Trasplante de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Vocales, en un número no inferior a nueve, entre profesionales de las diferentes especialidades implicadas en los trasplantes.

*Artículo 5.*– Los miembros del Comité Asesor serán nombrados por un periodo de cuatro años, renovándose por mitades cada dos años, salvo el Presidente, pudiendo ser reelegidos.

Se reunirán como mínimo una vez al año.

*Artículo 6.*– A propuesta del Comité Asesor, podrán acudir a las reuniones que se celebren, y colaborar en el desarrollo de sus actividades, otras personas de reconocida competencia en los temas a tratar, y cuyas aportaciones sean consideradas de interés.

*Artículo 7.*– 1.– Son funciones del Presidente, además de la representación del Comité:

a) la convocatoria de las sesiones y la fijación del orden del día.

b) presidir y moderar el desarrollo de los debates.

c) dirimir con su voto los empates a efectos de adoptar acuerdos.

d) efectuar cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

2.– El Secretario, además de las funciones que le son propias, ejercerá las siguientes:

a) impulsar las actividades relacionadas con los objetivos del Comité Asesor.

b) ejecutar los acuerdos que adopte el Comité Asesor.

*Artículo 8.*– Se crea la Subcomisión de Trasplante Renal, con funciones equivalentes a las del Comité Asesor de Trasplantes de Euskadi pero en su ámbito específico de actuación.

Sus miembros serán nombrados por el Consejero de Sanidad, a propuesta del Director General de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud, y estará formada por un Presidente, que será el Director de Asistencia Sanitaria de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud o persona en

teetarako koordinatzaileetako bat; eta kideak, gutxienez hamabi, giltzurriin trasplanteekin zerikusia duten espezialitateetako profesionalak.

Batzordekideak lau urtetarako izendatuko dira; bi urtez behin kideen erdiak berriitu behar dira, lehendakaria salbu; pertsona bera hautatu daiteke karguak berriren direnean.

Azpibatzerde hau gutxienez urtean bitan bilduko da.

9. atala. - Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako ordainsariak kenduta, Batzorde Aholkuemaileko kideek eta kolaboratzaileek ez dute bertan egindako lanagatik ordainketarik jasoko.

10. - Batzorde Aholkuemaile hau jardunean ipintzeko behar den administrazio aldeko euskarria Osakidetza emango du.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko azaroak 21.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### BERRIZ ELIZATEKO UDALA

5261

IRAGARPENA, euskararen teknikari gaitua lanpostua betetzeko lehiaketa-oposiziorako deialdiaren berri ematen duena.

1. - Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea, lehiaketa-oposiziaren bidez Udal honetako langile zerrendako Euskeraren Teknikari Gaitua lanpostua hornitzea da. Lanpostua Administrazio Bereziko Eskalan sartuta dago. Teknikariaren Azpieskalan Erdi Mailako Teknikari mota. B sailkapeneko eta 11 maila duena.

2. - Lanpostuaren ezaugarriak.

1. Lanpostua Berrizko plantila unitarioaren barnean sartzeko da eta jornada erdikoa izango da eta ez dakar berarekin lantoki edo departamentu jakin batean lan egiteko eskubiderik.

quien delegue, un Secretario, que será un miembro del Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y un número no inferior a doce vocales, entre profesionales de especialidades relacionadas con el trasplante renal.

Dichos miembros serán nombrados por un periodo de cuatro años, renovándose por mitades cada dos años, salvo el Presidente, pudiendo ser reelegidos.

Esta Subcomisión se reunirá al menos dos veces al año.

Artículo 9. - Sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que conforme al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, les puedan corresponder, los miembros y colaboradores del Comité Asesor no percibirán retribución alguna por su pertenencia o colaboración con el mismo.

Artículo 10. - El soporte administrativo necesario para el funcionamiento del presente Comité Asesor será provisto por Osakidetza/Servicio Vasco de Salud.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 1995.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE BERRIZ

5261

ANUNCIO por el que se hace pública la convocatoria del concurso-oposición para la provisión de un puesto de Técnico Profesional de Euskara.

1. - Objeto de la convocatoria.

El objeto de la presente convocatoria es la provisión, por el sistema de concurso-oposición, del puesto de Técnico Profesional de Euskara, recogido en la Relación de Puestos de Trabajo de este ayuntamiento. El puesto tiene la categoría de Técnico de Grado Medio y pertenece a la escala de Administración Especial, subescala técnica, grupo B y nivel 11.

2. - Características del puesto.

1. El puesto pertenece a la plantilla unitaria del ayuntamiento de Berriz, será de media jornada y no está adscrito a ningún lugar ni departamento concreto.